

Azoka
BER gara
tzen



Azoka Biziberritzeko ildoak:
Ekonomia Lokaleko eragileak eta Herri
eragileak

2014ko Martxoa

Ekonomia Lokala: 1go Saioa Martxoak 11

▪ Saioan jasotako ekarpenak.

- Legeen inguruko ardura azaldu da. Gauzak legalki eta alegalki egiten dituztenen arteko konparazioa. Dendari eta eskulangintzan aritzen direnen arteko irain edo bidegabekeriarik ez sortzeko. Hemen osagarritasuna sustatzea litzatekeela onena aipatu da.
- Postu fincoen artean (azokako dendariak), astean irekitzen ez duenik badagoela eta, hurrengo esleipenetara begira, egunero irekiko duenari lehentasuna emateko araudia aldatzea.
- Halere, zabaltzen ez duten egunetan, beste ekimen batzuetarako postuak erabiltzeko negoziatzeko aukera zabaltzea komentatu da.
- Asteazkena identifikatu da azoka egun berri bat egiteko moduan. Lora saltzailea gerturatzeko da eta jende gehiago ibiltzen da azokan. Hemen beste ildoetako ekintzak txertatuz, ekonomia lokaleko hainbat ekimen ere bultzatu daitezke (artisansuak, jardueren erakusketak, ...)
- Azokako dendariak zozketak egiten dituzte erosleen artean. Hauek hilabete t'erdiro egiten dituzte, eta honelako ekintzak (marketing) lagungarriak izaten dira.
- Alde batetik espazioa erabiltzeko, eta bestetik herritarren artean azokara joateko ohitura handitzeko azoka bereziak edo noizbehinkakoak:
 - o Truke azoka edo bigarren eskuko azoka egitea ere proposatu da (liburuak, arropak, dekorazioko elementuak, ...). Edozein herritarrei irekia, beraien etxeko gauzak saltzeko. Igandea aipatu da egun aproposa bezala. Agian hasieran hilean behin
 - Eskoletako ikas bidaiakoak ere gai honetara gonbidatzea.
 - Bilduma zaleak ere gonbidatzea (filatelia, numismatika, pegatinak, txapak, egutegiak, kromoak, giltzatakoak ...)
 - o Salmentarekin batera, jarduera desberdinak erakusteko aukera aipatu da: egurra lantzen dutenak, zeramika, zestogintza, etab. (Elgetako ereduak: hilabetean behin + dieta)
 - Bergaran ere badaude beste talde batzuk: bolilloak, makrame, eskulanak, etab. Hauek, erakutsi edota truke/2.eskuko azokan parte hartu dezaketela aipatu da.
 - Diseinatzaileen egun bereziren bat
 - Miren Olazabalen lanen erakusketa (buruhandiak, pertsonaiak, ...)
 - Altzarien konpontzaileen bat

- Ekintza osagarriez azoka bizitzea aipatu da. Nahiz eta igandean egin, jendea bertaratu eta azoka ezagutarazteko aukera emango luke:
 - o Lehengo "berduri hall"aren antzera, non musika eta dantza egiten zen.
 - o Kafe Konpon hilabetean behin azokan egitea (15ero, behin San Joxepen, eta behin azokan)
- Hasiera baten ekintza edo talde guzti hauek batera jartzearena aipatu da, eta indarra hartu eta parte-hartzea areagotzen den heinean, gertutasunagatik/gaika banatzea.
- Merkatariak egiten dituzten "outlet" egunak, azokan ere kokatu daitezke?
- Adibide hauek, uda baino lehenago aktibatzea komenigarri ikusi da. Laborategi gisa, ondorengo hilabeteetarako oinarriak jartzeko.
- Goikaldean dagoen garbiketa denda bertan uzteko aukera egongo balitz, pareko espazio horren bezainbestekoa aisialdi gunetik kanpo laga eta bertan kafetegi bat jartzeko aukera aztertzea proposatu da.

Ekonomia Lokala: 2. Saioa Martxoak 25

▪ Saioan jasotako ekarpenak.

Aurreko saiotik jasotako ekarpenen arabera bi motatako ekintzak aurreikusten dira, eta hauek zehazteko eta gauzatzeko egin beharrekoen inguruan eztabaidatu da saio honetan.

Aste barruan egiteko ekintzak:

- Edukia
 - o Artisauak
 - o Eskulanak erakusten dituztenak
 - o Jarduera erakutsi eta salmenta bateratua
- Antolaketa
 - o Asteazkena identifikatu da egunik aproposena moduan. Lore saltzailea etortzen den eguna da eta honek jendea erakartzen duenez, ekonomia lokaletik egin ahal daitezken ekintzak egun horretan egitea proposatu da.
 - o Hasiera baten hamabostero edo hilean behin egitea aipatu da.
 - o Parte hartuko duten pertsonen artean dosifikatzea proposatu da. Hasieran behintzat binaka egitea aipatu da, honela aste gehiagotan ekintzak egiteko aukera egon dadin.

- Plangintza:
 - Identifikazioa zabaltzea erabaki da.
 - Kronograma egitea erabaki da, gutxienez hilabeteko behin egiteko.

Astebukaeratan egiteko ekintzak

- Edukia
 - 2. Eskuko eta truke azokarekin hastea proposatu da. Honekin batera artisauek, eskulan eta bestelakoak ere bertan txertatuz.
 - Gerora gaika monografikoak egitea aproposa ikusi da (liburuak, jostailuak, altzariak, etab)
 - Bilduma zaleak ere ekintzetan txertatzea aipatu da
- Antolaketa
 - Igande goiza identifikatu da egun aproposa bezala.
 - Larunbata ere izan daiteke, azokako merkataritza egun indartsuarekin batera eginez.
 - Hilabetean behin egitea proposatu da.
 - Hasiera baten, Pentekoste jaien hurrengo larunbatean hastea proposatu da, astebukaera horretan salmenta asko jaisten dela nabaritzen baita.
- Plangintza
 - Identifikazioa sakondu behar da
 - 2. Eskuko azoka hasteko pare bat pertsona prest egon daitezke.
 - Trukea garatzeko herritarrak eta bilduma zaleak identifikatu behar dira.
 - Herrira zabalkunde indartsua egin behar dela adostu da, interesatuengana iristeko eta haiek antolakuntzan inplikatzeko.
 - Ondoren kronograma egitea erabaki da, gutxienez hilabeteko behin egiteko.

Herri Eragileekin saioa Martxoak 19

▪ Talde dinamikan jasotako ekarpenak.

Apainketa

- Azoka apaintzeko beharra dagoela adierazi da. Argazkiak, margoak edota bestelakoekin.
 - Tokia aproposagoa egiteko, espazioaren nolabaiteko banaketa posible egitea proposatzen da.

- Baserritarren postuak polit jartzeko ASPACEko kideak beraien saskiak uzteko prest agertu dira.
- Azokaren historia jaso eta mantenduko lukeen ekintza bat egitea proposatu da. Azokako postuen eta pertsonen argazkiak atera eta mural bat egitea proposatu da. Honekin batera herriko ofizioen eta dendarien historia ere batzea polita litzatekeela aipatu da.
- Erramu zapatuko ferian egiten diren txorimaloak, lehiaketa ondoren astebetetz azokan ikusgai lagatzea.

Espazioaren erabilera anitza

- Jardun euskara elkarreak, herrian ekitaldiak egiteko tokien gabezia edo eskuragarritasun zailtasuna azaldu du, daudenak gainezka bait daude.
- Margolaritza
 - Jada norbaitek eskatu du margo erakusketa bat egitea
 - Margolarien txapelketa azkarra antolatzea proposatu da
- Antzerkia
 - Taun Taun antzerki taldea, bi urtean behin egiten den Helduen Txontxongilo moxtran Azokako eraikina erabiltzearen alde agertu da.
 - Antzerki sketchak azokan txertatzea ekimen interesgarria izan daiteke jendea erakartzeko.
- Hitzaldiak
 - Herrikoak diren edota herriko gaiez jardun duten hainbat pertsonaiekin elkarriketa publikoak egitea proposatu da. Hitzaldi antzekoak baina formatuari buelta bat emanez. Adibidez, Iñigo Alberdi (OSEko zuzendari ohia), Manu Muniategi (Arkitekto eta arte ederrak), Koldo Eizagirre (Angiolillo eta Monzonen inguruan liburuak dituen), Jesus Mari Lazkano (margolaria), etab.
- Musika
 - Zuzeneko musika ere txertatzea azokan
 - Musika eskolako ekitaldiak erakusteko aukera
 - Flash Mob antzekoa. Abeslari eta musikariekin azoka dagoen bitartean zerbait egitea.
- Kirolak
 - Herri kirolen erakusketa
 - Boccia kirola erakusteko prest ASPACEkoak
 - Hanka labankakoen patinaia erakustaldia
- Argazkilaritza

- Argazkilaritza taldekoek urtean bi lehiaketa egiten dituztela adierazi dute (Bergara Hiria, gai librearekin, eta Kirol Argazki lehiaketak). Gainera ikastaroak ere egiten dituztela adierazi dute, baina hauek Zabalotegin duten egoitzan egiten dituztela esan dute.
- Umeekin argazki rallya antolatzea proposatu da

Salmenta eta erakusketa

- Ikastaroak salmentarekin uztartzea. Norbaitek zerbait egiten badu (eskulanak, jatekoak, etab) erakusteko ikastaroa antolatu bertan ere produktuak saltzeko aukera emanez.
 - ASPACE. Saskiak egiteko kit salmenta eta bai helduei eta bai aisialdi guneko haurrei erakusteko prest.
 - Maiatzean loren muntaia ikastaro eta lehiaketa.
 - Loraz gain, edozein materia begetalarekin edota birziklatutako materialekin egindako muntaiak. Sormena bultzatzeko ekintzak ere egitea.
 - Azokako hondakinekin eskultura efimeroak egitea.
 - Artisauak edota bestelako ekintzak bertaratu ezker, hauek dosifikatzea komenigarria dela aipatu da. Daudenak, urtean zehar aste gehiagotan banatzeko.
 - Kafe konpon ekimena azokan egitearena ere aipatu da, baina hasi berria den heinean oraindik ez dute oso argi ikusten. Horretaz gain, hilabeteko aste bakoitzean herri desberdin baten egitea ere aipatu da.
- Azoka bereziak
 - Udaletxeak antolatutako zuhaitz feria azokara gerturatzea.
 - Merkataritza mahaikoen ekitaldiak bertan egitea euria badabil (adibidez desfilea edota outlet modukoa)
 - Azaroan Jardunek egiten duen liburu truke azoka bertan egitea
 - Honekin bat liburuak laga eta hartzeko toki bat prestatzea
 - Jostailuen truke azoka egitea